

# Alkatearen agurra

2015, 2016, 2017, 2018, aurten ere herriko jaiak ate joka ditugu. Badatoz sanpedroak, hemen daude, herritarrok sarri egiten dugun moduan, elkartzeko, ondo pasatzeko eta antolatuta dauden ekintzez disfrutatzeko erabiliko ditugunak.

Aurten ere beste saiakera bat egin dugu guztiontzako jaiak antolatzeko, eta jende askoren ekarpenek balio izan dute egitarau oparoa egiteko. Antolaketa lanetan ibili zareten guztioi, eskerrik asko, lan isil horri esker ekintzaz beteriko egitaraua dugu eta.

Beste behin, argi eta garbi esan behar dugu guztiok dugula jaiez disfrutatzeko eskubidea, beraz, erabat baztertzen dugu edozein indarkeria mota, eraso sexistak barne. Jaiak beldurrik gabe ospatu ditzagun. Jaiak bai, errespetoa ere bai!

Azkenik, aurten ikurrinari omenaldi berezia egingo diogunez, eskaera berezia egin nahi dizuet: atera ezazue ikurrina zuen etxeko balkoietara.

*2015, 2016, 2017, 2018, otro año más vamos a celebrar nuestras fiestas patronales. Quiero presentaros el programa que ha sido elaborado gracias a las aportaciones de muchas personas, desde aquí mi agradecimiento a todas ellas.*

*Espero que disfrutéis de las fiestas, la participación de todas y todos es fundamental. Recordad que también en fiestas debemos evitar cualquier tipo de violencia, incluidas, como no, las agresiones sexistas: "No es no".*

*Para finalizar, y aprovechando que este año vamos a hacer un homenaje a la ikurriña, quisiera pedir a los eskoriatzarras que engalanen las ventanas y balcones con ikurriñas.*

**Gora Eskoriatza!!! Gora sanpedroak!!!**

Jose Ramon Zubizarreta  
Eskoriatzako alkatea

